



LIBURUA

Bizitzaz betetako uda

AMAIA ALVAREZ URIA

Maddi Ane Txoperena hendaier gaztearen, kazetariaren, eta bertsolariaren lehen liburua da hau. Gazteluma X. saria irabazi zuen eta horri esker heldu zaigu eskuartera. Dirudienez, hurrengo liburua idazten ari da, duela gutxi XXIII. Igartza saria irabazi berri du eta laster izango dugu bere bigarren lana irakurtzeko aukera.

Pertsonaien ganean eraikitako eleberria da bere *opera prima*. Protagonista Parisen Zientzia Politikoen lizentzia bukatzeaz duen Marie da. Uda garaian herrira bueltatuko da eta ikasketei amaiera emango dien lana burutzeko bere amaxi Josefinaren laguntza izango du. Izan ere, haren gaztetako bizipenak bilduko ditu lana egiteko.

Euskal literaturan emakume zaharren ahotza entzuten hasi garen honetan –adibidez, Arantxa Urretabizkaiaren *Hiru Mariak* edo Mari Luz Estebanen *Andre zaharraren manifestua*–, polita da idazle gazteak ere zaharregana hurbiltzen ikustea, haien ahotik hurbileko historia ezagutu nahian.

Pandemia garaian konturatu garazein gutxi balio duen gure –mendebal-



deko- kulturaren bizitzak, eta bereziki, zaharrenak. Hori dela eta *old lives matter* mugimendua jarri dute abian. Horren harira, badu interesa liburu honek, emakume zahar baten ahotsari ematen zaion garrantziagatik.

Ikuspegi feministatik ere, askotan ekinen ahazten da genealogiak egitea. Be-launaldien arteko harremanak bilatuz, elikatuz eta ezagutzak eta esperientziak partekatuz asko aberasten baita jarduna. Liburu honetan, biloba eta amonaren arteko harremana erdigunean jartzen du egileak sare hori eraikiz.

Euskal Herria Ipar eta Hego direla gogoratzeko ere ondo dator liburu hau.



GARAZI CONDE / ERRANEUS

ENE BAITAN BIZI DA MADDI ANE TXOPERENA

ELKAR, 2020

Izan ere, euskal literaturako eta kulturako hegozentrismoa gaintzen lagunduko digu mugan kokatzen den narrazio honek. Euskal identitatea osatuz eta espazio eta denbora mugak malgutuz, ekialdeko euskarara hurbildu nahi duen mendebaldeko irakurlearentzat ere gomendagarria da.

Bera, Donibane Lohizune eta Paris dira koordinatuak Marie eta Josefinarentzat. Izan XX. mendean edo XXI. mendean. Bidaia batekin hasi eta bukatzen da eleberria. Gazte baten uda batean zenbat gauza kabitzen diren ikusiko dugu bertan, baita zahar baten oroitzapenen kontaketa zenbat bizitza dagoen ere. ●